

5. ERANSKINA

Elkarrizketa

1. Zein izan zen sarea sortzeko abiapuntua?

Konturatu ginen eskoletako lana ez zegoela sistematizatua, gauza asko idatzita zeudela baina askok ez zekitela hori idatzita zegoenik. Horrela, eskolako lana sistematizatzearen beharra ikusi zen, batez ere, ondorengoei lana ondo uzteko eta idatzita zegoen guztia ordenatzeko.

Gero konturatu ginen, honekin eztabaidak etor zitezkeela, idatzita zeuden gauzekin eskolako langile guztiak ados egon ezin liratekelako, orduan adostasunetara heldu beharko liratekela.

Orduan gero, beste eskola batzuetan egiten eta gertatzen zena jakitea interesgarria izan behar zuela konturatu ginen eta momentu honetan sortu zen sarea osatzeko idea, orain esandako guztia kontuan hartuz.

2. Zein da “Kalitatea Hezkuntzan”-en helbururik nagusiena?

Helburu nagusiena, ikastetxeetan etengabeko hobekuntza-prozesuak sustatzea, erraztea eta bultzatzea da eta horretarako lau ataletan lan egiten da.

3. Zein da atalik garrantzitsuena zure ustez?

Egia da lau atalak oso garrantzitsuak direla eta hasieran dokumentuen kudeaketagatik sortu zela, baina kalitatea bermatzeko, nire ustez, ebaluazioa da garrantzitsuena eta honetan arreta jartzen saiatzen gara.

Hasieran, hilabetean behin elkartzeko ginen irakasleekin sarean lan egiteko, baina gero, aldatu eta bi hilabeterik behin izan zen. Gaur egun, hilabetean behin elkartzeko gara zentro guztietako irakasle batzuekin eta lan kooperatiboa bultzatuz, gai ezberdinen inguruan eztabaidatzen dugu. Hau autoebaluazio modukoa izan daiteke.

Ondoren, urtean birritan, eskola ezberdinetan egiten diren proiektu berritzaileak aztertzeke eta honi buruz hausnartzeko aukera ematen zaie irakasleei.

Bi gauza hauek egitean, nire ustez, irakasleei hausnartzeko eta haiek egiten dutena auto-ebaluateko aukera ematen zaie, ebaluazioak paper garrantzitsu hartuz.

Gainera sarean lan egitean, besteen iritziak entzuteko aukera ere izaten dute eta hau ere aberasgarria izaten da, beste leku batzuetan egiten dena ikusteko eta hau ere baloratzeko.

4. Harremanen inguruan lan egiten da?

Ez da harremanen inguruan zehazki lan egiten, hau da, ez dugu horrelako gauzetan arreta jartzen, baizik eta ikastetxeko antolamendu ezberdinetan.

5. Nork kudeatzen du sarea? Irakasleek?

Ez, sarea kudeatzeko, departamentuak, bi plaza ateratzen ditu eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakasle bana izaten dira koordinatzen dutenak, baina hauek liberatuak daude, bakarrik honetan egiten dute lan.